

1974 - VII - 26

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1974ko uztailaren 26an, arratsaldeko laurretan, bildu dira: Villasante buru, Haritschelher buru ordezeko, A. Arrue, A. Irigoyen eta L. Mitxelena euskaltzainjaunak; P. Altuna, G. Aresti, J. Berrojalbiz, S. Garmendia, X. Gereño, J. Intxausti, X. Kintana, J. L. Lizundia, J. Oregi, C. Santamaria, P. Uribarren, J. Zaitegi, A. Zatarain eta J. M. Zumalabe euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martín idazkari dala.

Dassance, Diharce, Eppherre, Irigaray, Lafitte, Larzabal eta Zavala jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Maiatzeko eta ekaineko batzar agiriak onhartu dira.

a) **HAR-EMANAK:**

Kukulla-ko San Millán-en ekainean egin genuen bilera bereziaren laguntzaile izan genituen Instituto de Estudios Riojanos, Logroño-ko Diputazioa eta San Millan-go Agustinos Rekoletosei eskerrak ematea erabaki da.

Irakasle tituluaren esamien berri eman da, Loiolan eta Paris-en esamina ongi pasatu dutenen zerrenda agertuz: Juan José Agirrezabalaga, Azkue, Xabier Irigoyen, Jesús Mari Haranburu Oiharbide, José Antonio Ormazabal, Mari Karmen Arostegi Tellería, José Agustín Ozamiz Ibinarriaga, M<sup>a</sup> Angeles Agirrezabalaga Alustiza, Karmele Urdanpilleta Urdanpilleta, Iñaki Zubeldi Otegi, Agustina Pôntesta, Belen Aizpuru Zubitur, Erramun Balenziaga, Jon Sudupe, Arantxa Alberdi Urzelai, Jose Larrañaga, José Antonio Etxezarreta Sudupe, Joseba Idoyaga Astelarra, Kontxi Zabaleta Labayen, Maria Jesus Arriola Agirre, Gorka Knörr, M<sup>a</sup> Lourdes Sistiaga, Gabino Zubeldia Gaztañaga, Olatz Olarte Lasa, Luis M<sup>a</sup> Satrustegi Galdona, Edurne Garmendia Garmendia, Sabina Arruabarrena Sukia, Libe Sarasua Gastesi, Arantza Zugazagasti Alberdi, Gurutz Larrañaga, Loreto Etxarri Danborenea, Ester Aizpuru Aizpuru, Eustasio Egües Aizpiolea, Miguel Barandiarán Iztueta, Jon Oyarzábal Zubeldia, Pepi Arruabarrena Sukia, Izaskun Arrue Goikoetxea, Maite

Zumalde Zumalde, Elena Aleman Hiribarren, Felisa Etxeberria Balerdi, Jesus Mari Sagarna, Edurne Agirre Zurutuza, Jose Ramon Beloki Zapirain, Natxo Mendialdua Lekue, Imanol Añon Albizu, M<sup>a</sup> Isabel Irizar Aranburu, Jesus Belaustegi Urionabarrenetxea, Pilare Baraiazarra, Mikel Zuazabeitia Errasti, Luis M<sup>a</sup> Aristegi Etxabe, Andres Alberdi, Joseba Camino, Pantxiko Larrañaga, Mikel Usabiaga Sukia, M<sup>a</sup> Amaia Andonegi Egurbide, J. Antonio Leunda, Kontxi Ibararan, Jose Llerandi, Pilar Sarasola Bulman, J.M. Larrazabal, Iñaki Arrarte, Peru Baratchegaray, Arantza Senosiain, José Ramón Eizagirre Garmendia, José Ramón Aizpurua, Resurrección Berasategi, Koxe Etxebarne, Josu Aranburu, Karmelo Arroiabe.

Gai honi buruz, urrengo etsamina urriaren bigarren larunbatez izango da.

Zatarain eta Oregi jaunei erantzunez, hitzak hautatzeko aburuzko solasa izan da.

Arrue jauna mintzatu da ekainaren 16an Madriden "Educación y Ciencia"ko ministro jaunarekin izandako elkarrizketari buruz adiarazpenez, batez ere Euskaltzaindiaren nortasuna oraingo legeen aurrean bideratzeko. Batzordeari jesticetan aurrera jarraitzeko eskaria egiten zaio.

Aditzera eman da, biharko egunez, Lafitte euskaltzain jaunaren ordenatzearen urre-eztaiak betetzen direla eta zorionak emanez telegrama jartzea erabakitzen da.

VII. "Toribio Alzaga" antzerki sarirako lanak hartu dira eta epai-mahaia izendatzen da: G. Aresti, I. Beobide eta P. Larzabal jaunak.

"Xenpelar" bertso-paper sarirako beste honako epai-mahaia izendatzen da: A. Zavala, A. Irigoyen, J.M. Lekuona, F. Artola "Bordari" eta J.M. Aranalde jaunak.

Urrengo batzarra, Udako Euskal Unibertsitatearen garai ingurua aprobetxaturik, Urdazubin izango da Axular-en omenez, irailaren 14an (iraileko bigarren larunbatean). J. San Martin-ek egingo du sarrera hitzaldia, "Literatura landuaren sorrerako giroa, Axularren garaira arte" gaiaz eta J. Haritschelhar jaunak emango dio erantzuna. Egun berean, Nafarroako Foru Diputazioaren Institución "Principe de Viana" eta Urdazubiko Udalaren babes eta laguntzaz, Axularri oroitarria jarriko zaio.

**HARTU DIREN LIBURUAK:** Cinsa-k emana, Daniel De Foe-ren **Robinson Crusoe** (X, Kintanak euskaratua); A. Irigaray jaunak emana A. Apat-Echebarne-ren **Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra**; J. Chacón Sabaté jaunak

emanik **Lengua Española y Literatura** (Segunda etapa de E.G.B. - Libro de consulta 8º), E. Soler, A.J. Pulpillo Ruiz, J. Chacón Sabaté eta M. Ramírez Valentín jaunek egin eta Barcelonako "Editorial Prima Luce, S.A."k argitaratua; J. San Martín jaunak emana P. B. Villareal de Bériz-en **Máquinas hidráulicas de molinos y ferrerías y gobierno de los montes y árboles de Vizcaya**; J. L. Lizundia, idazkari-ordezkoak Galicia-tik ekarriak, R. Piñeiro-ren **A lingoaren i as lingoas**, M.T. Barro, X. Toubes, C. Durán, M. Fernandez - Gasalla eta F. Pérez Barreiro Nolla egileen **Plan pedagógico Galego**, X.X. Santamaria Conde-ren **O Problema Galego de fala** eta G. Anaya Santos-en **la despresión cultural gallega**; eta idazkariak Archivo General de Guipuzkoa-tik atereak **Discusión sobre los Fueros de las Provincias Vascongadas**, Gipuzkoako Diputazioak eta Junta Generalak 1864-an argitaratua, eta Juan V. Araquistain-en **Tradiciones Vasco-Cántabras** 1866-an argitaratua. Guziei zorianak eta eskerrak ematea erabakitzen dá.

**b) 8 URTE ARTEKO IKASTOLA HIZTEGIARI BURUZKO BILERA BERE—  
ZIAREN BERRI:**

Euskaltzainburuak goizeko batzar bereziaren berri eman du, euskaltzain osoak ikastola hiztegiko batzordearekin bildurik 10, 11, 12. zerrenderi egin zitzaizkien oharrak aztertuz eta iritzien arauera zuzenketak eginaz. Beraz, 12garren zerrendara arte bukatutzat ematen da eta adiarazten du laster banatuko direla 13, 14, 15. zerrendak, azken oharreri orraztapanak emateko.

A. Irigoyen jaunak aditzera ematen du, berak "metro-barna"ri jarritako oharra nonbait huts egin dela, aztertzerakoan agertu ez delako. Puntu hau hiztegi batzordeak ohargilearekin osatzea erabaki da.

**d) "GORPUTZ ETA SOIN" GAIEZ MITXELENA JAUNAREN TXOSTENA:**

Hainbeste zalantza jarri den Gorputz eta Soín hitzeri buruz Arriandiaga zenak zuen iritzia agertzen du, eta baita Arriandiaga ustez. S. Aranak hontaz uste zuena ere, eta argi jartzen du bi hauentzat "gorputz" zala hitz jatorra eta ez "soin", erderazko **cuerpo** adieraztean, eta beren ustez "soin" beste gauza bat zala, **acuestas**-en kidekoa.

**e) "EUSKAL-ADITZEN SAILKAKERA JATOR BATEN BILLA", J. OREGI  
JAUNAREN TXOSTENA:**

Nordun eta nor gabe aditzak zer erizpiderekin erabili behar ditugunaren adierazpen luzea agertu du Oregi jaunak bere txostenean, eta bere adierazpenok

oso interesantetzat hartu dira.

f) **“ESTATU IZENAK”, X. MENDIGURENEN TXOSTENA X. KINTANAK IRAKURRIA:**

Sarrera batean “Estatu izenak” bateratzeko jarraitu duen kriterioa agertzen du, eta ondorean Estatu izenen zerrenda luze bat. Azkenik lanaren kopiak zabaldu dira, batzarkideei urrerorako oharrak eskatuaz.

g) **“IKASTOLETARAKO E.G.B.-KO TESTUGINTZA, IDAZKARIAREN TXOSTENA:**

Gipuzkoa Ikastola Elkarte Batzak deiturik Elgoibarren izan zen batzar batera agertu zala eta Euskaltzaindiari eskari hau egiten diotela, bere testugintza Casals eta Santillana argitaldarekin hornituko dutela, E.G.B.-rako testu onhartuak, itzultzaile talde bat osatu dutela euskara idatzi batuan egiteko eta Euskaltzaindiak orraztapena ematea eskatzen dutela, eta era berean Euskaltzaindiaren babesa eman testugintza honi.

Ontzat hartu da. Eta testuon orraztapenak Ikastola Histegiaren eta Aditz Batuaren batzordekoen esku ustean, kasu bakoitzean gaiaren espezialitateari begira lana banatzeko. Orraztapenok egiteko Larresoro ( J.L. Alvarez), X. Kintana eta S. Garmendia aipatzen dira.

Lehen bi liburuak, “Gipuzkoa Ikastola Elkarte Batza”gandik jasoak, **Matematikak** 2 eta 3 maila, Larresororen esku uztea erabakitzen da.

h) **BAKOITZAK DAKARRENETIK:**

Mitxelaña jaunak Reno-n **Hiztegi** nagusigintza, euskara-ingles, egiteko asmoa duela agertzen du.

Bizkaiko Diputazioak Deustuko Unibertsitatean euskal linguistikako katedra sortu duela aditzera ematen da.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua  
LUIS VILLASANTE

Idazkaria  
JUAN SAN MARTIN